BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



**PRENTSA OHARRA**

KULTUREM

# Kultur ekintza berriak igandeetarako Abellanedako Enkarterrietako Museoan

**Bilbon, 2011ko martxoaren 11n**. Bizkaiko Batzar Nagusiena den Enkarterrietako Museoak umeei zuzenduriko zenbait kultur ekintza antolatu ditu martxoko igandeetarako. Saioak eguerdiko 12:00etan hasiko dira Abellanedako Batzarretxea izan zenaren hitzaldi-aretoan.

Magia edo kontu-kontariak ohikoak izan dira orain arte, baina “Kulturem” deritzon aurtengo edizioan berrikuntza bat aurkezten du Enkarterrietako Museoak, hain zuzen be “Barreras” izeneko dantza-ekitaldia “Desper-tar los Sentidos” Arte Elkartearen eskutik.

MARTXOAK 13
Jon Zabal magoa
Gaztelaniaz. 7 urtetik gorakoentzat gomen-daturiko ekintza.

ENKARTERRIETAKO MUSEOA
MUSEO DE LAS ENCARTACIONES

Jon Zabal magoak magiaren artea eta umorea uztartzen ditu. Modu atseginean eta dibertigarrian atontzen ditu jendaurrean magia-saioak, egoeraren araberako umorea eta ikusleekiko inprobisazioa erabilita. Jendeak parte hartzen du ekitaldian eta horretara saioak behar duen sinesgarritasun-neurria eskaintzen da, magiaz benetan gozatu ahal izateko.

MARTXOAK 20
Toni La Salen kontuak. "Txotxongiloak".
Euskaraz. Adin guztietarako
Toni La Sal-ek lapurretan saiatu eta azkenean liburutegiko diru-kutxa eramaten du erratuta, barruan daramatzala Pinotxo, Otsoa, Txanogorritxo, Hiru Txerritxoetako azkarrena, Sorgiña, Botadun Katua eta Argiontziko Jeinua.

MARTXOAK 27
Despertar los Sentidos Arte Elkartea (dantza)
Gaztelaniaz. 7 urtetik gorakoentzat gomen-daturiko ekintza
Aurten, berrikuntza bezala, "Despertar los Sentidos" Arte Elkartea aurkezten dugu. "Barreras" deritzon dantza-saioa eskainiko dute. Elkarte hori 2001. urtean sortu zen ezintasun fisiko, psikiko edo zentzume-nezkoren bat jasaten duten pertsonen bizi-kalitatea hobatzeko asmoarekin. Despertar los Sentidos-ek mundu berria irekitzen du dantzaren gorputz-espresioaren bitartez, ekimen artistikoak berdintasunean egin ahal izateko, ongizate pertsonala eta gizarteratzea helburu izanik.
Saioaren amaieran Jon Anduezak zuzenduriko "Simplemente" izenburuko dokumentalaren emanaldia eskainiko da. Dokumentalaren protagonista Despertar los Sentidos Arte Elkartearen zenbait kide dira, eta ez dago ez gidoirik ez gai zehatzik: inprobisazioa eta espontaneitatea dira filmaren gauzarik erakargarrienak. Agerian jarri nahi da dantzaren eta artearen gaitasuna pertsonen ongizatean eta benetako gizarteratzean.

ENKARTERRIETAKO MUSEOA
Abellanedako Batzarretxea
Abellaneda auzoa, z/g.
48869 SOPUERTA. BIZKAIA
Tlfnoa: 94 650 44 88 – 94 610 48 15
e-maila: enkarterrimuseoa@bizkaia.net
www.enkarterrimuseoa.net
www.jjggbizkaia.net

**Nota de prensa**

KULTUREM

# Nuevas actividades culturales para los domingos en el Museo de las Encartaciones de Abellaneda

**Bilbao, a 11 de marzo de 2011.** El Museo de Las Encartaciones, perteneciente a las Juntas Generales de Bizkaia, ha programado para los domingos del mes de marzo diferentes actividades culturales para el público infantil. Estas sesiones comenzarán a las 12:00 horas en el salón de actos de la antigua Casa de Juntas de Abellaneda.

Al tradicional ciclo de magia o “cuentacuentos”, el Museo de Las Encartaciones ha introducido como novedad para esta nueva edición de “Kulturem”, un espectáculo de danza de la asociación artística “Despertar los Sentidos”, titulado “Barreras”.

13 DE MARZO
La Magia de Jon Zabal
Castellano. Actividad recomendada para mayores de 7 años.
El mago Jon Zabal combina el arte de la magia con el humor. Introduce al público mediante diferentes números en una atmósfera mágica muy agradable y divertida. El hilo conductor es el humor de situación y la improvisación con los espectadores. Ellos participan en el show dando el grado de credulidad necesario para que la magia se aprecie en toda su intensidad.

20 DE MARZO
Los cuentos de Toni La Sal. “Txotxongiloak”.
Euskera. Para todas las edades.
Toni La Sal se embarca en un atraco en el que termina llevándose por equivocación la caja fuerte de la biblioteca con Pinocho, el Lobo, Caperucita Roja, el más listo de los Tres Cerditos, la Bruja, el Gato con Botas y el Genio de la Lámpara dentro.

27 DE MARZO
Asociación Artística Despertar los Sentidos (danza)
Castellano. Actividad recomendada para mayores de 7 años.
Este año, como novedad, presentamos a la asociación artística “Despertar los Sentidos” que actuará con su espectáculo “Barreras”. La Asociación surge en el año 2001 con la finalidad de mejorar la calidad de vida de las personas que sufren algún tipo de discapacidad, física, psíquica y/o sensorial. Despertar los Sentidos, abre un mundo nuevo, a través de la danza y la expresión corporal, para poder practicar estas

actividades humanas y artísticas con igualdad para todos a favor de su bienestar personal y su integración.
Tras este espectáculo se emitirá el documental "Simplemente", dirigido por Jon Andueza, que tiene como protagonistas a diferentes miembros de la Asociación Artística Despertar los Sentidos. Sin guión ni argumento definidos, el film basa buena parte de su atractivo en la improvisación y la espontaneidad propias de este experimento narrativo, que se sumerge en la capacidad de la danza y del arte a favor del bienestar personal, la igualdad y la verdadera integración.

**MUSEO DE LAS ENCARTACIONES**
Casa de Juntas de Abellaneda
Abellaneda auzoa, z/g.
48869 SOPUERTA. BIZKAIA
Tlfno: 94 650 44 88 – 94 610 48 15
e-mail: enkarterrimuseoa@bizkaia.net
www.enkarterrimuseoa.net
www.jjggbizkaia.net